



Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000013-00 zenbaki duena.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, **ERABAKITZEN DUT:**

Lehena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	50.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		50.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	50.000,00
GUZTIRA		50.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Zarautzen, 2020ko urriaren 19an
Alkatea